BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4956

EBAZPENA, 2026ko azaroaren 12koa, HABEko zuzendari nagusiarena, euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek gelak digitalizatzeko baliabideak eskuratu ahal izateko eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat baliabide horiek irisgarri egingo dituzten gailu eta egokitzapenak ezartzeko aurkeztutako eskariak onartu eta eskatzaile bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa ezartzen duena, dirulaguntza hauen deialdia egin zuen 2026ko maiatzaren 19ko Ebazpenak ezarritakoaren arabera.

Ikusirik, deialdira aurkeztu eta eranskinean zerrendatzen diren eskatzaileak euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako titularrak direla eta onuradunek bete beharreko baldintzak betetzen dituztela.

Ikusirik, euskaltegiek dirulaguntzagai izateko eskatutako ekipamendu teknologikoa deialdi honetarako xede diren gelak digitalizatzeko baliabideak direla.

Kontuan hartuta, deialdiaren eranskinean adierazitako gehienekoa ezin dela gainditu eta diruz lagundu nahi den ekipamenduaren erosketa kostearen erdia laguntzen dela diruz.

EBAZTEN DUT:

1.– Eranskinean zerrendatzen diren euskaltegi pribatuei eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei gelak digitalizatzeko baliabideak eskuratu ahal izateko eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat baliabide horiek irisgarri egingo dituzten gailu eta egokitzapenak ezartzeko 95.353,18 euroko dirulaguntza onartzea, euskaltegi bakoitzari esleitutako kopurua eranskinean jasotzen delarik.

Esleitutako dirulaguntza hau izango da euskaltegi bakoitzaren gehieneko kopurua.

2.– Emandako dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko zaio erakunde onuradunari, gastua behar bezala zuritu ondoren, eta ebazpenaren 10. oinarriak aurreikusitako irizpideen arabera, hala behar balitz, kitapen-ebazpen baten bitartez doituko da.

Ebazpen honen aurka, administrazio bidea agortzen ez duenez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari. Horretarako, hilabeteko epea izango dute Ebazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Donostia, 2026ko azaroaren 12a.

HABEko zuzendari nagusia,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

ERANSKINA

Euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek gelak digitalizatzeko baliabideak eskuratu ahal izateko esleitutako kopuruak:

Onartutako eskaerak:

Erakunde Titularra	IFK	Diruz lagundutako materiala	Laguntza (euro)
Udaberria	G01026301	Gelak digitalizatzeko 2 arbel digital eta ordenagailu bat erostea	3.084,69
Juan Mateo Zabala	B48145965	3 monitore elkarreragileren erosketa	3.498,74
Ulibarri	F48199673	Ikasgelak digitalizatzeko 3 arbel digital eta 9 ordenagailu eramangarri erostea	7.865,08
Ika Gasteiz	G01052042	Amaritu euskaltegiko 6 ikasgela berriak digitalizatzea	5.644,65
Leizaur	F95583233	Bi gelatan pantaila interaktibo bana eta hiruna ordenagailu jartzea	4.504,35
Bilbo Zaharra	F48117774	2 monitore elkarreragile eta 3 ordenagailu ezartzea	4.259,40
Gabriel Aresti	F95242822	7 monitore elkarreragile erosi eta ezartzea	7.895,75
Maizpide	G20161402	Monitore elkarreragileei lotutako 2 ordenagailu ordezkatzea	853,05
Labayru	R4800525J	5 ordenagailu eramangarri eta mahai gaineko 1 erostea, arbel digitalei lotuta erabiltzeko	2.058,50
Zornotzako Barnetegia	G48254767	2 arbel digital interaktibo eta 6 ordenagailu eramangarri erostea	4.999,47
AEK	F95222816	Gelak digitalizatzeko xedez hainbat pantaila interaktibo, proiektore finko, proiektore eramangarri eta ordenagailu eramangarri erostea	47.653,02
Gernika XXI	B20820585	2 monitore elkarreragile eta horiei lotutako 5 ordenagailu ezartzea	3.036,49

*Zerrendatutako materiala erakunde titularrek aurrekontuetan aurkeztutakoa da. Ekipamenduen gastuak eta hauen instalazioarena hartu dira aintzat.